

10/25

irizpena

Guraso bakarreko familien araubidea
arautzen duen

dekretu-proiektuari buruzkoa

Bilbo, 2025eko uztailaren 24a



CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

Irizpena 10/25



I.- AURREKARIAK

2025eko uztailaren 8an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren idazkia sartu zen; horren bidez, txostena eskatu zuen honako honi buruz: *"Guraso bakarreko familien araubidea arautzen duen Dekretu-Proiektua"*, bat etorritz Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. artikuluan ezarritakoarekin.

Hizpide dugun arauaren xedea da, 1. artikulua araberan, guraso bakarreko familiei eta guraso bakarreko egoeran dauden familiei erregimen eta estatus propioa ematea. Horretarako, bakarreko familia eta guraso bakarreko egoeran dagoen familia izatearen aitortzea, titularren betebeharrak, berritzea, aldatzea eta aitortpenaren galtzea dakarten baldintzak arautzen dira.

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaion Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, proposamenak eta iritzia eman zitzaion eta horiek, aldi berean, zegoen Lan Batzordeari helaraz ziezazkieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudiak xedatutakoaren arabera.

2025eko uztailaren 18an, Gizarte Garapenerako Batzordea bildu zen eta, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin zen uztailaren 24ko Batzordearen Osoko Bilkuran lantzeko. Han aho batez onartu zen.

II.- EDUKIA

"Guraso bakarreko familien araubidea arautzen duen Dekretu-Proiektua" izeneko dokumentuak hauexek biltzen ditu: zioen azalpena, 22 artikulua eta azken xedapen bat.

Zioen azalpenak dioenez, familia da gizartearen erakunderik garrantzitsua, haren oinarriko unitatea. Haren muinean, pertsona hazi, hezi eta garatu egiten da. Horregatik, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak onartzen du familiak betetzen duela pertsonaren funtsezko harremanak ehuntzeko eginkizun ordezkaezina, eta jokabide, tradizio, ohitura, erabilera eta sinesmenen jarraibideak transmititzeko bidea dela. Legeak, gainera, familiak antolaketa-modu ugari har ditzakeela adierazten du, eta, ondorioz, gizarteak onartu eta babestu behar dituela, betiere, zentzu pluralen: familia guztiek, edozein forma eta osara dutela ere, familia horiek osatzen dituzten pertsonen sozializazio- eta errealizazio pertsonalerako eginkizuna bete dezakete.

Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak bereziki jorratzen du guraso bakarreko familiak babesteko beharra, haiek baitira, gehienbat, kalteberatuak: familia mota horrek pobrezia-arrisku handiagoa du, familia eta lana uztartzeko zailtasun gehien sufritzen ditu eta gizarte-bazterkatuenak izan ohi dira. Horri guztiari generoagatiko diskriminazioa gehitzen zaio askotan; izan ere, guraso bakarreko hamar familietatik zortzik emakume bat dute buru, eta datu ukaezinak dira emakumeen jardura-tasa eta okupazio-tasa txikiagoa dela gizonezkoekin alderatuta. Orohar, enplegu ezegonkorragoak dituzte, lanaldi partzialen ehuneko handiagoarekin eta, askotan, gizonek baino ordainsari txikiagoa jasotzen dute, nahiz eta lanpostu bera betetzen ari diren.

Arartekoak, *"Familiei laguntzeko politikak Euskadin: azterketak eta proposamenak"* ohiz kanpoko txostenean, Eusko Jaurlaritzari araugintza-tresnak garatzea gomendatu zion, guraso bakarreko familiak babesteko esparru bateratua sortzeko, haien eskubideak murrizten dituzten diskriminazio-egoerak ezabatuz.

Horregatik guztiagatik, EAE jakitun da guraso bakarreko familiak egoera bereziki ahulean daudela, eta,

dekretu honen bitartez, guraso bakarreko familiak eta guraso bakarreko egoeran dauden familiak aitortzeko eta egiaztatzeko prozedura bat arautzen du. Familia-ereduetatik bereizitako estatus propio batez hornitzeak familia horiek babesteko neurri espezifikoak garatzea ahalbidetuko du.

Gainera, dekretu honek XIII. legegintzaldiko gobernu-programaren aginduari erantzuten dio. Programa horren 147. konpromisoak Administrazio hurbilagoan, errazagoan eta eraginkorragoan sakontzea proposatzen du. Horregatik, guraso bakarreko eta guraso bakarreko egoeran dauden familiak aitortzea ziurtagiri erraz eta azkar baten bidez egingo da.

III.- GOGOETA OROKORRAK

"Guraso bakarreko familien araubidea arautzen duen Dekretu-Proiektua" aurkeztu da horren inguruko irizpena eman dezagun; izan ere, familia-errealitateen aniztasuna eta gurasotasuna gauzatzean aukera-berdintasuna bermatzeko beharra aintzat hartuta, dekretu-proiektuak azken aldian aldaketa eta hazkunderik handienak izan dituen bizikidetzaren ereduak bati erreparatzen dio, guraso bakarreko familiari, hau da, guraso bakar batek bere seme-alaben gaineko erantzukizuna eskusiboki bere gain hartzen duen familia motari.

Positiboki baloratzen dugu dekretu hau, Familiei Laguntzeko 13/2008 Legea aplikatuz familia mota horiei babes berezia eman nahi diena, pobrezia-arriskuaren, kontziliaziorako zailtasunen eta gizarte-bazterketako egoeren eraginpean egon daitezkeelako.

Hala ere, legegileari zenbait gogoeta eta aldaketa-proposamen helarazi nahi dizkiogu, garrantzi berezikotzat jotzen dugun arau batean, kalteberatasun-egoerei **estaldura hobea** emate aldera:

- Lehenik eta behin, gogorarazi nahi dugu, zioen azalpenean aitortzen den bezala, guraso bakarreko familien % 80k **emakumeak dituztela buru**, nahiz eta ekintza positiboko neurririk ez zehaztu.

Horregatik, zioen azalpen horretan errealitate hori nabarmentzea iradokitzen dugu, bai eta "guraso bakarreko familiak, gehienbat ama bakarrekoak" edo "guraso bakarreko familiak, gehienak emakumeak buru dituztenak" esamoldeen gisakoak txertatzea ere, esparru juridikoari kontra egin gabe auziaren **ikusgarritasuna indartzeko**. Ildo beretik, gogoeta espezifikoetan, 4. artikuluan (guraso bakarreko familien kategoriak) gehigarri bat proposatuko dugu.

- "**Guraso bakarreko familiak**" eta "**guraso bakarreko egoeran dauden familiak**" bereizten dira (3. artikulua), eta bigarren familia horiek aintzat hartzeko, familiaren diru-sarrera ekonomikoak hartzen dira kontuan.

Gure ustez, diskriminatzailea da irizpide gehigarriak ezartzea egoera horretan dauden familientzat, haien sailkapena ez bailitzateke diru-sarreraren arabera izan behar. Gure ustez, **guraso bakarreko egoera guztiak** babestu behar dira, eta etorkizunari begira egin beharko litzateke, betiere familia horientzako laguntzak arautzen direnean, irizpide ekonomikoak txertatzen direnean. Ildo horretan, berariazko gogoetetan, 3.2 artikulua kategorizazio horretan jasotako familientzat ezartzen dituen diru-sarreraren baldintzak ezabatzea proposatuko dugu.

- Guraso bakarreko familiaren egoeran zeintzuk familia dauden zehaztean, 3. artikulua 2. b) atalean hau esaten da: "*Seme-alabak ardurapean dituen amak beste gurasoarengandik **genero-indarkeria jasan duena...***"

Gure ustez, era berean, ama **sexu-indarkeriaren biktima** deneko kasua sartu beharko litzateke, eta hori ez da kontuan hartzen eta, hala ere, 8. artikuluan inguruabar hori aipatzen da zer dokumentazio eskatzen den zehaztean: "*Sexu-indarkeriaren biktimaren edo terrorismoaren biktimaren egoera dagokion ebazpen judizial edo administratiboaren bidez egiaztatuko da.*", bai eta 16. artikuluan ere, ziurtagiriaren indarraldiari buruz hitz egitean: "*Genero-indarkeria, sexu-indarkeria eta terrorismoaren biktima izatearen kasuan, aitorpena bost urterako izango da, inguruabar horren egiaztapena ematen denetik aurrera*".

Era berean, beste kasu bat gehituz, gomendatzen dugu gurasoak **gizakien salerosketaren biktima gisa** duen egoera egiaztatzea, beste araudi autonomiko batzuetan jasotzen den bezala.

- Oro har, **familia migratzaile askok** lortu ezin duten dokumentazioa eskatzen du dekretuak. Ziurtagiria erantzukizunpeko adierazpenaren edo gizarte-zerbitzuen txostenen bidez ematea proposatzen da, eta, zentzu horretan, aurrerago, 8. artikuluan gehitzea proposatuko dugu.

Bestalde, gaur egungo idazketarekin, dekretuak kanpo utz ditzake **asilo-eskatzaileak, salerosketaren biktimak edo erregularizazio-prozesuan dauden emakume atzerritarrak**, urtebeteko erroldatzea eskatzen baita (5.1 artikulua). Horregatik, proposatuko dugu babes subsidiarioa duten edo egoera bereziki ahulean dauden pertsonak baldintza horretatik salbuestea.

- Guraso bakarreko egoeran dauden familien tipologiaren barruan sartu beharko lirateke, gure ustez (3.2 artikulua), honako inguruabar hauek: Familia batean elkarrekin bizi diren gurasoetako bati **askatasunaz gabetzeko** zigorra ezartzen zaionean, baldin eta zigor horrek urtebeteko edo gehiagoko espetxeratzea badakar, eta **gurasoak** ospitaleratuta edo tratamendu-zentro batean egon behar duenean, urtebeteko edo gehiagoko aurreikuspen medikoarekin, haren mendeko pertsonekin batera.

Askatasun-gabetzearen kasuan, eta lehen adierazi dugun bezala, inguruabar hori ez da 3.2 artikuluan jasotzen, eta, hala ere, 16. artikuluan aipatzen da, aitorpenaren indarraldiari buruz hitz egitean: "*Askatasun-gabetzearen edo lurralde nazionaletik kanporatzearen kasuan, aitorpenak urtebeteko indarraldia izango du.*" Beraz, beharrezkotzat jotzen dugu, halaber, kontzeptuak zehazteko orduan aipaturiko kasua jasotzea.

- Amaitzeko, ideia orokor gisa, guraso bakarraren izaera egiaztatzeko eskatzen diren **baldintzak eta dokumentazioa** eskuragarriagoak eta sinplifikatuagoak izatea gomendatzen dugu, familia horiek errazago sar daitezen babes bereziko kategoria horretan.

Zehazki, 8. artikuluan (Dokumentazioa), pertsona askorentzat benetako eragozpena izan daitezkeen eskakizun burokratikoak sinplifikatzea gomendatzen dugu. Horregatik, eta 3. atalean esaten dena kontuan hartuta ("*Aitorpena lortzeko egoerak eta baldintzak egiaztatzeko dokumentazioa ezarritako elkarreragingarritasun-mekanismoen bidez eskatuko da*"), ahal den neurrian, aurkeztu beharreko dokumentazioa murriztea iradokitzen da, eta administrazio publikoen bidez egiaztatu behar duenak kontsultatzea.

Izapide burokratikoetako dagokienez proposatuko ditugun beste aldaketa batzuk **epeei buruzkoak** dira, bai ebazteko eta jakinarazteko epeei buruzkoak (11.1 artikulua), bai genero-indarkeriaren, sexu-indarkeriaren edo lurralde-indarkeriaren biktima izatearen egiaztapenaren indarraldiari buruzkoak (16.2 artikulua).

IV.- GOGOETA BEREZIAK

3. artikulua. Kontzeptuak

Lehenik eta behin, artikulua honen **2. atalean** definitzen da zer den "**guraso bakarreko egoeran dagoen familia**".

Familia horiek sailkatzeko sartzen den diru-sarreraren betekizunari buruzko gogoeta orokorretan azaldutakoa errepikatu nahi dugu, eta, ildo horretan, **a), b), c), d) eta e) puntuetan** honako hau kentzea proposatzen dugu: "*baldin eta familiak urteko diru-sarrerak ez baditu LGSa baino 2 aldiz handiagoak, urteko zenbaketan*".

Bigarrenik, artikulua horren 5. paragrafoan honako hau esaten da: "*familiaren urteko diru-sarrerak zenbatzeko, aintzat hartuko dira aitorpena eskatu baino 2 urte lehenagoko zergaldian lortutakoak.*"

Uste dugu idazketa hori ez dela behar bezain argia aipatutako aldiari dagokionez, eta, argiago gera dadin, gomendatzen dugu adierazitako testuaren ordeztu **"eskuragarri dagoen azken ekitaldia"** aipatzea, eta, era berean, **8. artikuluan** aldaketa bera egitea gomendatzen dugu, aurkeztu beharreko dokumentazioa zehaztean.

4. artikulua. Guraso bakarreko familien eta guraso bakarreko egoeran dauden familien kategoriak

Gogoeta orokorretan azaldutakoa azpimarratuz, eta guraso bakarra izateko modurik ohikoena egoera larriagotu gisa ikusarazte aldera, artikulua honetan "**guraso bakarra izatea**" kategoria berezi gisa sartzea proposatzen da, **a) atalean** honako hau gehituta:

"Guraso bakarreko familiak edo guraso bakarreko egoeran daudenak bi kategoriatan sailkatzen dira:

a) Berezia:...

8.- Emakume guraso bakarra familia-unitatearen arduraduna den familiak, hazteko eta zaintzeko karga eksklusiboak dituenak, batez ere prekaritate edo diskriminazio anizkoitzeko testuinguruetan".

Ondorioz, 8.2 artikulua zehaztu beharko du zer jotzen diren "prekarietateko edo askotariko diskriminazioko testuingurutzat" irizpide objektiboetan oinarrituta (txosten ofizialak, adibidez).

5. artikulua. Guraso bakarreko familia edo guraso bakarreko egoerako familia izaera egiaztatze eta mantentzeko baldintzak

1. paragrafoak xedatzen du eskatzaileak legezko bizileku efektiboa izan beharko duela eskabidea aurkezteko unean eta aitorenaren indarraldi osoan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egon beharko duela, etenik gabe, eskaera aurkeztu aurreko hamabi hilabeteetan gutxienez.

Oro har, uste dugu EAEn errolatutako hamabi hilabeteko antzinatasuna ez litzatekeela baldintza izan behar "guraso bakarreko familiatzat" edo "guraso bakarreko egoeran dagoen familiatzat" hartzeko. Eta, zehatzago, baldintza horrek migrazio-egoera berezietan dauden familia batzuei ekar diezazkiekeen arazoak aipatu ditugu gogoeta orokorretan.

Horregatik, uste dugu komenigarriena izango litzatekeela erroldan antzinatasunaren **baldintza hori kentzea**, nahiz eta benetako bizilekuaren gutxieneko antzinatasuna eskatu beharko balitz, gogorarazi nahi dugu antzeko beste araudi autonomiko batzuetan **sei hilabetez** errolatzea eskatzen dela.

8. artikulua. Dokumentazioa

Lehenik eta behin, guraso bakarreko familia izaera aitortzeko **izapide burokratikoak sinplifikatzearen komenigarritasunari buruz** adierazitakoa errepikatzen dugu.

Bigarrenik, eta atzerriko familiei buruz azaldutakoari dagokionez, **2. atalaren amaieran honakoa gehitzea** proposatzen da, egoera ahuletan izapideak malgutzeko:

"Egoera bereziki zaurgarrietan (nazioarteko babesa, salerosketa, dokumentazio ofizialik gabeko emakume migratzaileak), egiaztapena onartuko da gizarte-zerbitzuen edo aitortutako erakundeen txostenen bidez".

Gehikuntza hori bat etorri beharko da "prekarietate edo diskriminazio anizkoitzeko testuinguruen" definizioarekin. Testuinguru horiei aurre egin behar diete askotan guraso bakarreko familiek edo emakumeak buru dituzten guraso bakarreko familiek (ikus 4. artikuluari buruzko gogoeta).

11. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea

1. paragrafoak sei hilabeteko epea ezartzen du ebazteko, eskaera organo eskudunaren edozein erregistrotan sartzan den egunetik zenbatzen hasita.

Epe hori gehiegizkoa iruditzen zaigu, eta uste dugu **hiru hilabete** epe egokiagoa litzatekeela.

16. artikulua. Aitorpenaren indarraldia eta kategoria berezia

2.a) atalak honako hau xedatzen du: "Genero-indarkeria, sexu-indarkeria eta terrorismoaren biktimizaera gertatuz gero, aitorpena bost urterako izango da, inguruabar horren egiaztapena ematen denetik aurrera".

Horrek berekin dakar dokumentazioa errepikatzea familia-egoeran aldaketarik ez dagoenean. Baldintzak mantentzen direnean automatikoki berritzen lagundu ahal izatea iradokitzen da, eta, beraz, honako **gehigarri hau** proposatzen da:

"a) Genero-indarkeriako, sexu-indarkeriako edo terrorismoko kasuetan, aitorpena bost urtekoa izango da, hargatik eragotzi gabe automatikoki berritzea, hurrengo artikulua araber, baldin eta hura eragin zuten inguruabarrek jarraitzen badute".

V.- ONDORIOA

El CES Vasco considera adecuada la tramitación del "Proyecto de Decreto por el que se regula el régimen de las familias monoparentales", con las consideraciones que este órgano consultivo ha efectuado para su modificación.

En Bilbao a 24 de julio de 2025

OE Presidentea

Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia

Izaskun Astondo Sarria